



IHOTEAK ETA KARROXA

Lerro hauetatik, beste behin, eskerrak eman nahi dizkizuegu lhoteetan eta karroxan parte hartu duzuen familia guztiei; eta bereziki, festa prestatzen lan egin duzue familia guztiei. Guretzat, berebiziko garrantzia duen proiektua da eta hurrengo urteetan ere, bide beretik jarraituko dugu, eskolaren presentzia herrian indartuz.

GURASO ELKARTEA

Hurrengo ostegunean, martxoak 7a, arratsaldeko 16:45etan, irakasle gelan, Guraso Elkarteak bilera egingo du.

BIGARREN EBALUAZIOA

Duela aste batzuk, gure eskolako klaustro bilera batean, ebaluazioen luzera ezberdina aztertu genuen. Urtero, gure egutegia ezberdina da eta honek, ikasleen ebaluazioak asko aldatu ditzake, batzuetan bi hilabetetara ez da iristen eta beste kasu batzuetan ia lau hilabetekoa da. Ikasleen hobe beharrez eta beraien ebaluaketa orekatze aldera, ikasturte 3 zati berdinetan banatu genuen iraupen bera izan zezaten. Beraz, 2018/2019ko bigarren ebaluaketa hurrengo martxoak 22an bukatuko da eta orduan jasoko dituzue zuen seme-alaben notak.

ZORRIAK

Mesedez ongi begiratu zuen seme-alaben buruak zorriak desager daitezten.

KORRIKAKO ARROPA SALGAI!

Apirilaren 4tik 14ra KORRIKAREN 21. edizioa ospatuko da eta Oiartzundik apirilaren 12an, gauerdian pasako da. Hori dela eta bi jakinarazpenen berri eman nahi dugu. Batetik, arropa salmenta jarriko da herrian. Kolore biziz egindako elastiko eta sudadera bikainak daude, baita korri egiteko espezializatuak ere. Eskaintza paregabea da! Otsailaren 15etik martxoaren 1era Intxixu AEK euskaltegian izango duzue eskuragarri. Goizez 10:00etatik 13:00etara eta arratsaldeaz 17:00etatik 20:00etara.

Klika! Intxixu AEK euskaltegia

UDALEKUAK

2019ko udarako udalekuen deialdia zabaldu dute. Uztaila edo abuztuan, Abaigar, Goñi edo Bernedora joan nahi izanez gero, www.udalekuak.eus web orrian sartu bertan edukiko dituzue argibide guztiak.

MARTXOAK 8 GREBA

KLAUSTROKIDEOK BAT EGIN DUGU DATORREN MARTXOAK 8AN EGINGO DEN GREBA DEIALDIAREKIN. ESKOLAN ZUZENDARITZA ETA ATEZAINA BAKARRIK EGONGO DIRENEZ, ZAILA DA ZUEN SEME-ALABEN ZAINTZA BERMATZEA. Orduz kanpoko ekintzak ez dira egingo.

Informazio gehiago: www.elizaldekogurasoelkartea.blogspot.com.es eta www.elizalde.eus



HAURRENTZAKO ANTZEZLANA MARTXOAK 2, 17:00 PLENO ARETOAN

Mari eta Gailera Fabrika

Berdintasunaz eta parekidetasunaz jarduten duen 7-13 urte bitarteko umeei zuzendutako antzezlanaz

eidabe
Bizkaia
etxe pare
EKO





EKO TAILERRAK

JASANGARRITASUNERAKO HEZITZEN

Martxoak 6: MATERIAN SARTZEN

- **Haurrentzat:** Ipuin kontaketa.
- **Helduentzat:** Ingurumen arazoak, osasun arazoak ere badira; ze planeta nahi diegu utzi gure seme-alabei?



Martxoak 13: BILTZEN

- Helduak eta txikiak gure parkeetara joango gara zaborrak biltzera eta mural bat egingo degu problematika barneratzeko.

Martxoak 20: ALTERNATIBAK

- **Haurrentzat:** Jaboiak sortzen tailerra
- Piknik osasungarriak



Martxoak 27: INDARRA HARTZEN

- **Haurrentzat:** Ginkana
- **Helduentzat:** zer egingo degu indartzeko komunitate sortuta.

LEKUA: Elizaldeko Mediatekan

Martxoan, asteazkenero (16:45-18:00)



ELIZALDEKO
GURASOAK

